



igartza musika

TENPORA

HASIER OLEAGA

ITSASO ETXEBESTE

BEÑAT BARANDIARAN

JUANTXO ZEBERIO ETXETXIPIA

ELENE ARANDIA

IGARTZAKO JAUREGIAN
2017ko uztailaren 21ean, 22:00etan

TENPORA

Bost musikari hauek 2013ko martxoan elkartu ginen talde soinu sendoaren bilaketa-prozesua abian jartzeko asmoz. Argitaratutako maketa eta lehen diskoarekin *-MUNDU BERRIA-* 2015 kontzertuak eskaintzen ibili ondoren, bigarren laneko kantuak konposatu eta entseatzeko ibili gara urtebetez, berriz ere Karlos Linazasoro eta Harkaitz Canoren hitzak lagun. Aurtengo maiatza-ekainean grabaketa estudioan murgildu eta jada prest dugu iraila aldera kaleratuko den bigarren CD-a *-ITZULIKA-*

Hamar kantu berri, hamar istorio, Beasaingo Pottoko estudioan grabatuak eta gaur lehen aldiz Beasaingo Igartzako Jauregi eder honetan aurkeztuko ditugunak.

- Hasier Oleaga - Bateria
- Itsaso Etxebeste - Baxua
- Beñat Barandiaran - Gitarra
- Juantxo Zeberio Etxetxipia - Teklatuak
- Elene Arandia - Ahotsa

“Denbora eta eguraldia, musika eta hitza, barua eta oturuntza, guk zuretzat prestatu dugun tempo samur xume bat, une batez barrurago bizi zaitezten, zeuk daramazun jainko ttikiaren baitan. Gure abestiak, gure maitasun guztia eta poza, eta Lauaxetaren min betiko aspaldikoa, eta hori guztia bizitzeko denboraz gabiltzalako, eta nahi dugulako zu gure bidaide izatea, akordez akorde, hanka-punttetan, poza irrian eta denon soa urruntasun gozagarrienean iltzatua. Hementxe, zugandik bihozkada batera”



Beasaingo udala

Tfnoa 943 02 80 50
udala@beasain.eus
www.beasain.eus

BEASAINGO
LOINATZ
Musika Eskola



Tfnoa 943 02 81 05
musikal@beasain.eus
www.beasaingomusikaeskola.eus